

## HITZAURREA

Obra honek, bilduma honetan aurretik argitaratutako gehienek bezalaxe, bere helburuekin bat etorrita, hizkuntza-irakaskuntzaren arloan garrantzitsuak diren gai metodologikoak ditu ardatz, ezin baitzuen bestela izan. Oraingoan, baina, irakaskuntza-gaitasun metodologikoa bera da azterketaren xedea, eta hori izatea funtsezkoa da lanbide-jardun egokirako; izan ere, trebatu egingo gaitu, ikaskuntzarako egokiena eta komenigarriena dena *egiten* jakin dezagun une oro.

Hizkuntzari eta ikaskuntzaren izaerari buruzko ikusmolde bat dauka oinarrian, eta horien gainean, bere diseinua: ikaskuntzaren helburuak; programak; irakaslearen eta ikaslearen betekizunak; irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren antolamendua; segida didaktikoak; prozedura prototipikoak... Eta hori guztia ikaskuntza-testuinguruari egokiturik. Hori esanda, honako hauek ditugu hizpide, besteak beste: ikasi beharreko hizkuntza; ikaslearen helburuak eta adina; ikaskuntza-maila; ikasleek zein irakasleek ezagutzen dituzten tradizio pedagogikoak; irakaskuntza-eta ikaskuntza-prestakuntza; baliabide zehatzen erabilgarritasuna; horiek ezartzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak betetzea; etab.

Liburua, hain zuzen, Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroek nire zuzendaritzapean eta HABEren lankidetzarekin iaz eskainitako “Hizkuntza-irakaslea / IX: Irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako gaitasun metodologikoa – Joera metodologiko, ikuspegi eta metodo garaikide nagusien azterketa” ikastaroan mahai gainean jarritako gairik garrantzitsuenen laburpena da. Ikastaro horretan, ikuspegi historiko eta eguneratu, zabal eta praktikoa batetik heldu zitzaion gaiari, honako hauen irakaskuntza-arloetako hezkuntza-jarduerari begira: H1 (ama-hizkuntza), H2 (bigarren hizkuntza, ikasten

den gizartean ofizialtasun-estatusa duena) eta H2, atzerriko hizkuntza moduan —batez ere, ikaskuntza-testuinguru formaletan—.

Hizkuntza-irakaskuntzaren arloko profesionali zuzendutako argitalpena da (H1, H2 eta AH-atzerriko hizkuntza), nola derrigorrezko hezkuntzaren arloan, hala derrigorrezkoa ez denean; bai eta irakaskuntzan jarduteko prestakuntza-prozesuan ari diren ikasleei eta birziklatzen ari diren edo birziklatu nahi duten pertsonei zuzendutakoa ere, euren lanbide-jarduna hizkuntza-irakaskuntzara bidera dezaten. Era berean, honako hauetarako aukera ematen dio irakasleari: gaur egungo metodoen eta ikuspegi metodologikoen berrikuspen kritikoa egiteko; bere irakaskuntza-jardunaren eta oinarrian dituen printzipioen berrikuspen kritikoa egiteko; bere bilduma metodologikoa zabalteko, testuingurura egokitu ahal izateko; eta arlo horretako lanbide-garapena izateko. Bide beretik, marko teoriko-praktiko bat eskainiko zaio, proposamen pedagogikoen diseinuan, ezarpenean eta ebaluzioan lagungarriak izan daitezkeen ebidentzia enpirikoetan oinarritutakoa, gero ikasgelan praktikan jartzeko.

Bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi nizkioke egileari, Gabriel Díaz Maggioli irakasleari, eskarmentu handiko irakasle, idazle eta hizlariari, ikastaroan parte hartzeko eta obra hau gure bilduman euskaraz argitaratu ahal izateko erakutsi duen erabateko prestasunagatik, arduragatik eta gogo biziagatik. Ohore handia eta plazer hutsa izan da harekin lankidetzan jardutea. Mila esker, era berean, aipatutako ikastaroan parte hartu zuten ikasleei; bereziki, aurreko hemezortzi urteetan foro horretan HABEk antolatutako ikastaroren batean ere parte hartu dutenei. Eskerrik asko Iñaki Murua argitaratzaileari ere, egilearekin batera obra argitaratzeko egindako ekarpen eta lanordu guztiengatik. Eta, azkenik, nola ez, Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroei eta HABEri eman nahi nizkieke eskerrak, bi erakunde horien lankidetzarik gabe ezinezkoa zatekeelako obra hau argitaratzea.

Joanba Bergara

HABEko Prestakuntza Atalaren arduradun ohia